Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

OT-001-2016

**Gaia:** Bilbo Metropolitarreko Eremu Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena

**Asunto:** Aprobación Inicial de la Revisión del PTP del Área Funcional de Bilbao Metropolitano

Iradokizun Zenbakia: 57
Nork aurkeztu du: Zamudioko Udala

Aurkezpen data: 2022/02/09

Sugerencia Nº: 57
Presentada por: Ayuntamiento de Zamudio

Fecha de presentación: 09/02/2022

## IRADOKIZUNAREN LABURPENA

1. «Loiu-Zamudio» plangintzak bateratzeko eremuari buruz, iradokizunaren arabera, sektorearen garapena bideragarria da, beraz, bideak gauzatzeko kostua onar daiteke, eta ibaiertzeko hiri-parke bat ere egin daiteke lursailak sektoreari atxikitako sistema orokor gisa lagata. Xede horrez, ezinbestekoa da poligonoaren hasierako dentsitatea mantentzea, hortaz, lehendik dauden zuhaitzak ondoko ibaiertzeko parkearen zerrendara eta udalerrian ingurumena hobetzeko eremu gisa izendatutako guneetara, hala nola Asua ibaiaren ertzetara, eraman daitezke.

   Horregatik, eskatzen da, esku-hartze publikoa nahitaezkoa bada, honako hau zehazteko: nahasitako administrazioa BFAren errepideetako saila izango dela. Horrez gain, zuhaitzak uholde-arriskua duen eremutik kanpo ateratzea utziko da, bai proposatzen den ibaiertzeko parkera, bai udalerrian ingurumena hobetzeko guneetara, lekualdaketa horiekin poligonoen arteko bideak eta sektorea bera egikaritzean bideragarritasuna emateko dentsitate nahikoak mantenduko bailirateke,

2. Eskatzen da LPPak:

- Lekunbizko geralekuaren egiazko kokapena jasotzeko, akatsen 12 planoan (*motorrik gabeko azpiegiturak*) azaltzen baita.
- Torrelarragoitiko eremuan geltoki edo geraleku berriaren proposamena sartzeko;

## RESUMEN DE LA SUGERENCIA

1. Sobre el área de compatibilización de planeamientos «Loiu-Zamudio», la sugerencia señala que se considera que el desarrollo del sector es viable, lo que implica que el coste de ejecución del vial es asumible, e incluso es posible la creación de un parque urbano de ribera con cesión de los terrenos como sistema general adscrito al sector. Para ello se requiere mantener la densidad inicial del polígono, por lo que el arbolado existente podría ser trasladado tanto a la franja de parque de ribera colindante como a las zonas declaradas de mejora ambiental en el municipio, como son las márgenes del río Asua.

   Por ello se solicita que, en caso de que fuera necesaria la intervención pública se especifique que la administración implicada sea el departamento de carreteras de la DFB, y que se permita el traslado del arbolado fuera de la zona inundable, o bien al propuesto parque de ribera o bien a las zonas de mejora ambiental del municipio, ya que solo con ese traslado se mantendrían densidades suficientes para dar viabilidad, no sólo a la ejecución del vial interpolígonos, sino incluso al propio sector.

2. Se solicita que el PTP:

- recoja la ubicación real del apeadero de Lekunbiz, que aparece situado erróneamente en el plano 12. *Infraestructuras no motorizadas.*
- incluya la propuesta de una nueva estación o apeadero en la zona de Torrelarragoiti, y dé

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZFFZ-V95P-P4VL-FULE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

helburua da bizitegien hirigunetik pasatzean trenbidearen trazadurari zorupetik konponbidea ematea.

3.“AEIP04. Txorierriko nekazaritza-eremuak” paisaia-interes bereziko gunean eremu bat sar dadin ikuskatzeko eskatzen da. Ugaldeguren I poligonoaren eta Txorierriko igarobidearen arteko lursail-zerrenda bat da, eta kamioetarako aparkalekuarekin poligonoa handitzeko eta, Agirletara igotzeko bidearen ondoan, Bilbaobarri auzoko etxebizitzetara irisgarritasun-arazoak konpontzeko egokia da.

4. Txorierriko igarobideko bideen sistema orokorrak bidearen beraren lursailak eta inguruko beste batzuk jasotzen ditu. Eraikitzeko desjabetu ziren, baina dagoeneko ez dira beharrezkoak. Adibidez, hondeaketa-materiala metatzeko erabilitako eremua oraindik Sistema Orokor modura sailkatuta dago. Horrenbestez, eskatzen da Txorierriko igarobidearen kasuan planoetan Aldundiak desjabetutako lursailen azken mugaketa zorrozki irudikatzeko eta beharrezkoak ez direnei bestelako erabilerak eman ahal izateko.

5. LPParen bide-azpiegituren planoan Txorierriko etorbidean garraio kolektiboaren zirkulazio esklusiborako bi tarte mugatzen dira. Zamudioko tartean, hiriko bizitegi-eremuen artean, elizatik eskola publikoetaraino, egokiagoa da trafikoa moteltzeko neurriak zehaztea, baina ez beren-beregi garraio kolektiboak erabiltzea, tarte horretan lehendik etxebizitza asko baitaude eta asko proposatzen baitira.

Horregatik, Zamudioko “garraio kolektiboaren zirkulazio esklusiborako tartean” erabilera aldatzeko eskatzen da.

6.LPPak bi eremu “metropoli-intereseko nekazaritza- eta abeltzaintza-eremuko landa-habitat” gisa aipatzen ditu, eta bertatik ateratzeko eskatzen da, etorkizunean, plangintza ikuskatzean, hiri-lurzoru edo behe-dentsitateko lurzoru urbanizagarri gisa garatzeko baldintzak dituztelakoan:

- Txorierriko etorbidearen ondoko lursail-zerrenda, hirigunea etorkizuneko Kadaltsoko

solución al trazado de la vía ferroviaria a su paso por el núcleo urbano residencial mediante su soterramiento.

3. Se solicita la revisión de la inclusión de un ámbito en el área de especial interés paisajístico “AEIP04. Zonas agrícolas del Txorierri”. Se trata de una franja de terreno entre el polígono Ugaldeguren I y el corredor del Txorierri, que se considera apropiada para ampliar este polígono con la construcción de un aparcamiento de camiones, así como para solucionar problemas de accesibilidad a las viviendas del barrio Bilbaobarri, junto al vial de subida a Santo Domingo.

4. El Sistema general viario del corredor del Txorierri recoge tanto los terrenos del propio vial, como otros adyacentes, expropiados para su construcción, que no son ya necesarios. Por ejemplo, el área utilizada para acopio de material de excavación sigue hoy clasificada como Sistema General. De ahí que se solicite que en los planos se recoja estrictamente la última delimitación de los terrenos expropiados por Diputación para el corredor del Txorierri, de modo que los no necesarios tengan la posibilidad de soportar otros usos.

5. En el plano de infraestructuras viarias del PTP se delimitan en Txorierriko Etorbidea dos tramos de circulación exclusiva para transporte colectivo. El tramo de Zamudio, comprendido entre las zonas residenciales, urbanas, desde la iglesia hasta las escuelas públicas, es más apropiado para establecer medidas de calmado de tráfico, pero no para uso exclusivo de transporte colectivo, dada la gran cantidad de viviendas existentes y propuestas en dicho tramo.

Por ello se solicita el cambio de uso del “tramo de circulación exclusiva para transporte colectivo” de Zamudio, por el de “tramo de calmado de tráfico”.

6. Se solicita la exclusión de dos zonas señaladas por el PTP como “hábitat rural de zona agropecuaria de interés metropolitano”, ya que se considera que tienen condiciones para su desarrollo como suelos urbanos o urbanizables de baja densidad en una futura revisión del planeamiento:

- Una franja de terreno junto a Txorierriko Etorbidea que uniría el centro urbano con el

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZFFZ-V95P-P4VL-FULE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

ekipamenduarekin eta Lekunbiz auzoarekin elkartzeko.

- Olostealde izenekoa familia bakarreko etxebizitzen eremua da, eta hirigunearen eta Parke Teknologikoko industria-erabilerako hiri-lurzoruaren artean ageri da.

IRADOKIZUNARI EMANDAKO ERANTZUNA

1. Gaur egun ezin dakioke egotzi errepideen arloan BFAko sail eskudunari Larrondo eta Ugaldegurenen artean egiteke dagoen bidetartea gauzatzea, ez baita foru-sarean sartzen eta Bizkaiko Errepideei buruzko LPSak ez baitu aurrez ikusten. Jarduera ekonomikoen sektore mugakideak garatzearekin lotuta dago.

   Testuinguru horretan, LPPa ez da oztopo zuhaitzak ibaiertzeko parkera eramateko, plangintzan proposatzen den antolamenduaren arabera. Zuhaizti hori lekuz aldatzeari buruzko gaiak dagokion IEEn baloratu beharko dira.

2. Behin-behineko onesteko LPParen dokumentuaren hurrengo fasean Lekunbizko geralekua benetan kokatuko da, eta 12. planoan (motorrik gabeko azpiegiturak) duen kokagune akastuna zuzenduko da.

   Torrelarragoitiko eremuko geltoki berriari dagokionez, gaur egun arloko agintaritzak aurrez ikusi ez arren, LPPak ibilgailu pribatuaren aldean garraio kolektiboa gehiago erabiltzearen aldeko apustua egiten duenez, eremu funtzionalaren etorkizuneko bilakaera kontuan hartuta, LPPean garatzeko proposamen modura sartzea aztertuko da.

   EAEko Trenbide Sareko LPSak Zamudioko hirigunetik pasatzean trenbidea kentzea aurrez ikusten du. Hala, hegoaldeko ertzean zorupeko perimetro-ibilbidea planteatzen da. Jarduketa LPPari erantsiko zaio.

3. LPPean paisaiaren zehaztapenak gomendioak dira, beraz, "AEIP04. Txorierriko nekazaritza-eremuak" paisaia-interes bereziko eremuaren definizioa ez da eragozpena Ugaldeguren I poligonoa kamioetarako aparkaleku batekin

futuro equipamiento de Kadaltso y el barrio de Lekunbiz,

- La otra, denominada Olostealde, es una zona de viviendas unifamiliares ubicadas entre el centro urbano y el suelo urbano industrial del Parque Tecnológico.

CONTESTACIÓN A LA SUGERENCIA

1. En el momento actual no sería atribuible al Departamento de la DFB competente en materia de carreteras la ejecución del tramo de vial pendiente entre Larrondo y Ugaldeguren, ya que no forma parte de la red foral ni está contemplado en el PTS de Carreteras de Bizkaia, sino que se encuentra ligado al desarrollo de los sectores de actividades económicas limítrofes.

   En este contexto, el PTP no constituye un impedimento para trasladar los árboles al parque de ribera, de acuerdo con la ordenación que se proponga en el planeamiento. Las cuestiones relativas al traslado de dicho arbolado deberán ser valoradas en la correspondiente EAE.

2. En la siguiente fase del documento del PTP para su aprobación provisional se recogerá la ubicación real del apeadero de Lekunbiz, corrigiendo su situación errónea en el plano 12. Infraestructuras no motorizadas.

   Respecto a la nueva estación en la zona de Torrelarragoiti, aunque no está contemplada actualmente entre las previsiones de la autoridad sectorial, en la medida en que el PTP aboga por potenciar el uso del transporte colectivo con preferencia sobre el vehículo privado, se estudiará su inclusión en el PTP como una propuesta a desarrollar en función de la evolución futura del área funcional.

   El PTS de la Red Ferroviaria de la CAPV prevé la eliminación del trazado ferroviario a su paso por el núcleo urbano de Zamudio, planteando un recorrido perimetral soterrado por el borde sur del mismo. Dicha actuación será incorporada al PTP.

3. Las determinaciones del paisaje tienen en el PTP un carácter recomendatorio, por lo que la definición del área de especial interés paisajístico "AEIP04. Zonas agrícolas del Txorierri" no supone un impedimento para

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZFFZ-V95P-P4VL-FULE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

handitzeko eta Bilbaobarri auzoko etxebizitzetara iristeko arazoak konpontzeko.

ampliar el polígono de Ugaldeguren I con la construcción de un aparcamiento de camiones, así como para solucionar los problemas de accesibilidad a las viviendas del barrio Bilbaobarri.

Dena den, poligonoa handitu nahi izanez gero, paisaiaren inguruabar horri erreparatu beharko zaio, eta, ahal den neurrian, antolamendua zaindu beharko da. Kamioetarako aparkalekuaren pertzepzioak dakarren “gogortasuna” arindu beharko da, etxebizitzetarako sarbideekin eta igarobideko ezponda berdearekin bateratzeaz gain. Horretarako, EAEko lurralde-antolamenduan pasaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren 7.3 artikuluak xedatutakoari jarraikiz, Paisaian Txertatzeko Azterketaren esparruan zenbait neurri aintzat hartu beharko dira.

Sin embargo, la ampliación del polígono debe tener en cuenta esta circunstancia paisajística y deberá cuidar en lo posible la ordenación prevista, suavizando la “dureza” que implica la percepción de un aparcamiento de camiones y conciliándolo con los accesos a las viviendas y el talud verde del corredor. Para ello deberán contemplarse una serie de medidas en el marco de un Estudio de Integración Paisajística, previsto en el artículo 7.3 del Decreto 90/2014, de 3 de junio, sobre protección, gestión y ordenación del paisaje en la ordenación del territorio de la CAPV.

4. ILPPak indarreko hirigintza-plangintza du. Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak soberakinak metatzeko eremua dagoeneko desafektatu du.

   Nolanahi ere, hori ez da arazo bat udal-plangintza ikuskatzean eremu horretan bestelako erabilera bateragarriak esleitzeko.

4. El PTP recoge el planeamiento urbanístico vigente. La zona de acopio de sobrantes ya está desafectada por el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial.

   En todo caso, esto no supone un problema para que en la revisión del planeamiento municipal se puedan asignar otros usos compatibles en esa área.

5. Proposamenaren helburua da hirigunetik trafikoa ez pasatzea eta inguruko jarduera ekonomikoetarako lurzoruen bide-bilbetik (parke teknologikokoak eta industria-poligonoetakoak) joan daitezen bortxatzea. Gainera, planteamendu hori LAGen 25.5 artikuluaren arabera aztertu behar da, garraio kolektiboko sareen intermodalitatearen ahalmena optimizatzea aztertzen baitu.

   Noski, proposamena udalerriak aztertu eta garatu beharko du, eta bide-tarte laburrean egingo da, egoiliarren sarrera/irteera mugimenduak arriskuan jarri gabe. Helburu bakarra da trafiko horietarako oztopo izatea. Neurri horrekin, iradokizunarekin ildotik, trafiko lasaia indartuko litzateke, eta hirian zentralitate goreneko eremua sortu ere bai.

   Edozelan ere, ez da LPParen eskumena hirigunean ibilgailuen zirkulazioarekin lotutako alderdiak zehaztea; bai, ordea, udal-plangintzarena. LPPean iradokizun modura

5. El objetivo que se persigue con la propuesta es el de evitar los tráficos pasantes por el núcleo urbano, forzando a que discurran por las tramas viarias de los suelos de actividades económicas colindantes (parque tecnológico y polígonos industriales). Este planteamiento hay que analizarlo, además, desde la lectura del artículo 25.5 de las DOT que trata de optimizar el potencial de intermodalidad de las redes de transporte colectivo.

   La propuesta, obviamente a estudiar y desarrollar por el municipio, debe ser concebida sobre un tramo corto de la vía, el cual no comprometiese los movimientos de entrada-salida de los residentes, y con el único objeto de hacer de barrera ante los citados tráficos pasantes; sería una medida que fortalecería el calmado de tráfico aludido en la sugerencia y la creación de un ámbito de máxima centralidad urbana.

   En cualquier caso, no es competencia del PTP, y sí del planeamiento municipal, concretar aspectos relacionados con la circulación de vehículos en el casco urbano. Tal y como se

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZFFZ-V95P-P4VL-FULE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

planteatzen den bezala, proposamena udalerriaren egungo aurreikuspenen gainean ez da nahitaezkoa, baina etorkizunari begira, ikuspegi berri bat ematen dio Zamudioko hirigunearen balizko tratamenduari.

6. LPPari jarraikiz, "metropoli-intereseko nekazaritza- eta abeltzaintza-eremuko landa-habitataren" baldintza gainjarria berez ez litzateke eragozpena izango behar arrazoituan funtsatuta lurzoru horiek Hiri-Hazkundeko Perimetroaren (HHP) barruan lurzoru gaitu berriz sailkatzeko, LAGen 11. artikuluak eta LPParen 56. artikuluak xedatutakoaren arabera.

Hala eta guztiz ere, argitu behar da LPParen baldintzatzaile hori aurretiazko informazio garrantzitsuan oinarritzen dela: Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak lursail gehienak nekazaritzako balio estrategiko handiko lurzoruaren kategorian sartu ditu, beraz, 62. artikuluko erabilera-matrizeari jarraikiz:

- Eraikuntza-erabileretako hazkuntzak debekatuta daude, lehendik dauden guneetan oinarritzen ez badira.

- Udal-plangintzak lehendik dauden guneetan oinarritutako hazkuntza planteatzen badu, aukeren analisian nekazaritza-ingurunean eragina berariaz baloratu beharko du.

Gainera, ohartarazi behar da LPParen eta LAGen eredua, bai eta gutxieneko eraikigarritasun-eskakizunak dituenez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea ere, behe-dentsitateko urbanizazio sakabanatuak garatzearen aurka daudela. Hala, lege honen zioen azalpenak (II, 2 eta 1) hala dio:

*"Hirigintza hazten ari da etengabean, eta joera hori, dentsitate txikian eta belaki antzera garatzen ari dela, gero eta zabalduagoa da; Autonomia Erkidego honek, bere lurraldeko inguru zabal askotan, ez du urbanizatzeko moduko lurzoru nahikorik, eta, orduan, ondorio hau atera behar dugu, alegia, eredu hori berriz aztertu behar dela, sakon eta premiaz, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeak ez duelako urbanizazio-maila horri eusteko besteko gaitasunik. Legeak horrexegatik ezarri du, bide berriak urratuta, lurzorua zentzuz eta intentsitatez erabiltzeko joera, eta, aldi berean, zehatz finkatu ditu, izaera orokorra emanda, kasuan kasuko antolamendu-eremuen*

plantea en el PTP, con carácter de sugerencia, la propuesta no crea obligación alguna sobre las actuales previsiones del municipio y, sin embargo, cara al futuro, ofrece una nueva dimensión en el potencial tratamiento del centro urbano de Zamudio.

6. La condición superpuesta de "hábitat rural de zona agropecuaria de interés metropolitano" recogida en el PTP no supondría por sí misma un impedimento para la reclasificación de estos suelos en caso de necesidad motivada, de acuerdo con lo establecido en el artículo 11 de las DOT y el artículo 56 del PTP en suelos aptos situados dentro del Perímetro de Crecimiento Urbano (PCU).

Sin embargo, hay que aclarar que ese condicionante del PTP se fundamenta en una información previa que resulta relevante: la categorización por el PTS Agroforestal como suelos de alto valor estratégico agrológico de la mayor parte de esos terrenos, lo cual supone, de acuerdo con la matriz de usos de su artículo 62, que:

- Estarían prohibidos los crecimientos de usos edificatorios no apoyados en núcleos preexistentes.

- En el supuesto de que el planeamiento municipal plantee un crecimiento apoyado en núcleos preexistentes, deberá incluir en su análisis de alternativas una valoración específica del impacto en el medio agrario.

Además, debe advertirse que tanto el modelo del PTP y de las DOT, como el de la Ley 2/2006 de Suelo y Urbanismo, con su exigencia de edificabilidades mínimas, se manifiestan en contra de los desarrollos de urbanizaciones dispersas de baja densidad. Así en la Exposición de Motivos de esta Ley (II, 2, 1) se dice:

*"La tendencia a la extensión de la práctica urbanística de crecimiento urbano en desarrollos esponjados y en baja densidad, en una comunidad autónoma que carece de suelo apto para urbanizar en grandes partes de su territorio, nos lleva a la conclusión de que dicho modelo debe ser revisado en profundidad y con carácter urgente, porque el territorio de la Comunidad Autónoma no dispone de capacidad de acogida suficiente para soportar tal urbanización. Por eso se impone en esta ley, con carácter novedoso, una utilización racional e intensiva del suelo, a través del señalamiento con carácter general de una edificabilidad mínima y de*

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZFFZ-V95P-P4VL-FULE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

*lurrazal osoarekiko eraikigarritasun minimoa eta eraikuntzaren okupazio minimoa. Azken batean, «familia bakarreko etxeak eta eraikin adosatuak» eta etxe sakabanatuak eraikitzeko kultura hori ahal den neurrian gehiago ez zabaltzea lortu nahi dugu, eraikitzeko modu horrek lurralde-zati handiak hartzen dituelako (eta lurra ondasun urria da, eta ezin da berritu) eta, gainera, sortzen diren hiri-ereduak ez direlako ez funtzionalak, ezta, beraz, eramangarriak ere".*

*una ocupación mínima de la edificación respecto a la superficie total de los respectivos ámbitos de ordenación. Se trata de evitar en la mayor medida posible la extensión de la «cultura de la vivienda unifamiliar y del adosado» y los crecimientos dispersos, que, además de consumir gran cantidad de territorio, recurso siempre escaso y de carácter no renovable, generan modelos urbanos poco funcionales y, por lo tanto, poco sostenibles".*

LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
LA DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: ZFFZ-V95P-P4VL-FULE
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus